



EAEko
Emakumeen Etxeen
inguruko erradiografia

2023



AURKIBIDEA

Sarrera	3
Helburua eta ikergaiak	4
Ikerketa eremuak	5
Subjektuak eta metodologia.....	6
Emaitzen analisia	10
Azken hausnarketa: erronketatik abiatu.....	24
Eranskina I: esparru arauemailea	27
Eranskina II: galdetegia	29

SARRERA

Gela bat norberarentzat aldarrikatu zuen 1929an Virginia Woolf idazleak, izen bereko liburua argitaratu eta gero. Hego Euskal Herriko Mugimendu Feministaren aldarrikapen historiko bezala ere kokatu genezake emakumeen arteko elkargune edota espazio propioen eskaera frankismo ostetik aurrera. Genero desperekotasunari aurre egiteko lanaren baitan hartzen du zentzua aldarrikapenak, eta hor, bat egiten dute gizarte mugimendu, erakunde publiko zein elkarte andanak. Berdintasuna lortzeko helburuan, estrategikotzat jo da emakumeen ahalduntzea eta boteretzea sustatzea, eta bide horretan aktibatu dira ekimen ugari. Askoren artean, geroz eta herri gehiagotan martxan jarri diren ahalduntze eskolak edota emakumeen etxeak.

Ikerketa hau, **Bilboko Galtzagorri elkarteak** bultzaturiko prozesu baten barruan kokatzen da zeinaren motibazioa Bizkaiko hiriburuko emakumeen beharrak asetzen laguntzeko berariazko espazio bat diseinatzea eta gauzatzea den. Emakundek diruz lagundutako ikerketa izan da. Ikerketaren helburua, EAE mailako Emakumeen Etxeen inguruko ezagutzan sakontzea da. Izan ere, frogatuta dago “elkarrekin bildu” eta “elkarrekin gauzak egitea” (Mari Luz Esteban, 2020), oso dela lagungarria emakumeek beraien bizitzaren jabe egiteko prozesuetan murgiltzeko eta Emakumeen Etxeak, hain zuzen, horretarako espazio dira. Halaber, halako proiektuak errealitate soziala aldatzeko eta parekideagoa bihurtzeko bitarteko oso eraginkorrak dira eta horregatik jaso ditugu esperientzia horien gaitasunak diagnostiko honetan. Modu honetan, Galtzagorri ematen ari den hausnarketak osatu asmo dira.

Azken urteetan EAEko hiru lurraldeetako hainbat herritan ireki dira Emakumeen Etxeak edota elkarguneak. Batzuk ibilbide luzea egin dute eta beste batzuk ireki dira berriki. Bakoitzak bere izaera

du, bere antolatze modua, bere finantzazio sistema, bere instalazioak, etab. Beretasun horretan badira komun ugari, ordea. Hain zuzen, txosten honetan esperientzia eta praktika horietatik abiatuta Emakumeen Etxeetako errealitate, indargune eta erronketako batzuk identifikatzen dira, sortze bidean diren halako proiektuentzat ikasbide izateko.

Azterketa hau egiteko, emakumeen etxeetako aktore printzipalekin egon gara, dinamizatzaile eta erabiltzaileekin, eta lehenengo mailako ahots horien bidez jaso dugu egoeraren berri. Txosten honetan biltzen direnak horren emaitza dira. Lehendabizi ikerketaren nondik norakoak kokatzen dira, horretarako ikerketa eta helburuak azalduz hasieran eta subjektuak eta metodologia ondoren. Behin hori eginda, emaitzen analisia egiten da, bertan ikerketan jasotako datuen deskribapen eta interpretazioa eginez. Azkenik, Emagineko kideok txostenean biltzen diren ideietatik abiatuta egiten dugun hausnarketa jasotzen da. Txosten honek, halaber, bi eranskin ditu: bata, esparru arauemaileari dagokiona eta bigarrena, inkesta egiteko txantiloari dagokiona,

HELBURUAK ETA IKERGAIAK

HELBURU OROKORRA:

EAEko Emakumeen Etxeen inguruko erradiografia bat osatzea.

HELBURU ZEHATZAK

Emakumeen Etxeek gaur arte izandako bilakaera jasotzea.

Emakumeen Etxeek funtzionamendurako darabilten kudeaketa sistema eta egiten dituzten jardura nagusiak aztertzea.

Emakumeen Etxeetan inplikatur dauden eragile instituzional eta sozialen artean dauden harremanak aztertzea.

EAEen egun funtzionamenduan dauden Emakumeen Etxeen inguruko mapeo bat osatzea.

Egun Emakumeen Etxeek dituzten indargune, ahulgune eta erronka nagusiak identifikatzea.

IKERKETA EREMUAK

Azterlan honen helburu nagusia erdiesteko, hots, EAEko Emakumeen etxeen inguruko diagnostikoa osatzeko, ondorengo gaiak analizatu dira:

1

Emakumeen Etxeek gaur arte izandako bilakaera.

2

Hego Euskal Herrian aktibo dauden Emakumeen Etxeen izaera.

3

Emakumeen Etxeen funtzionamendua eta kudeaketa sistema.

4

Emakumeen Etxeek dituzten finantzazio iturriak.

5

Emakumeen Etxeek egiten dituzten jarduerak nagusiak eta horiei loturiko helburuak.

6

Emakumeen Etxeetan inplikaturak dauden eragile instituzional eta sozialen artean dauden harremanak.

7

Emakumeen Etxeko azpiegitura eta bitartekoak.

9

Emakumeen Etxeek dituzten indargune, ahulgune eta erronka nagusiak.

SUBJEKTUAK ETA METODOLOGIA

Prozesuan parte-hartu duten eragileak

TALDE TEKNIKOA: EMAGIN ELKARTEA

2003. urtetik aurrera ari gara lanean. Urte hauetan guztietan lehen-tasunez mugimendu feministaren hausnarketak, teoriak, antolatze-ko modu eta ibilbide metodologikoak tentuz jarraitu ditugu, horiek baitira, gure ustez, demokratizazioan eta parekidetasunean oinarritutako gizartea sortzeko jarraitu beharreko aztarna nagusiak.

Formazio, ikerketa eta artxibo lanez gain, askotariko ekoizpenak argitaratu ditugu. Emagineko lantaldea soziologoak, psikologoak, antropologoak eta ekintza parte hartzaileetako adituak diren pertsonak osatzen dute, eta guztiek genero ikasketak dituzte. Epistemologia eta prozedura feministak oinarri izanda, eraldaketa soziala bultzatu nahi dugu gure ikerketa eta lan jardunaren bitartez.

Lurraldeko Emakumeen Etxeekin hartu-eman zuzena izan dugu Emagin Elkartetik. Azpeitiako Emakumeen Txokoa 2011-2019 tartean kudeatu genuen, dinamizatzaile paperean, eta azken hamarkada honetan sortu diren Emakumeen Etxe guztiekin harreman oso estua izan dugu. Esate baterako, emakumeen etxeetako agenda guztietan presente egon gara, egitarau zein proposamenetan parte hartu dugu, eta zenbait etxeetan egin diren hausnarketetan ibili gara, estrategiak bateratzeko edota hobetzeko. Horiek horrela, uste dugu Emakumeen Etxeena oso errealitate hurbila zaigula.

Lan taldeko bi pertsona aritu dira proiektu honetan. Horien funtzioa diagnostikoaren diseinua egitea, informazioa eskuratzeko tresna sortzea, landa lana eta datuen analisia egitea izan dira: txosten hau da lan guzti horren emaitza.

BILBOKO GALTZAGORRI ELKARTE FEMINISTA

Diagnostikoa egiteko prozesua abiarazi, koordinatu eta jarraipena egiteaz arduratu da. Lan talde teknikoarekin batera proiektu adostu eta berekin koordinatzeaz arduratu da. Baita ere, eragile ezberdinen koordinazioaz eta profilen bilaketaz.

EMAKUMEEN ETXEETAKO DINAMIZATZAILE EDO TEKNIKARIAK

Emakumeen Etxe bakoitzak du dinamizazio lana edo lan teknikoa aurrera daraman pertsona bat. Horiek ezagutzen dituzte egunerokoan dauden erronkak, hutsuneak, beharrak eta, nola ez, potentzialitateak. Askotariko ibilbideak dituzten arren, ezinbestekoa izan da horien begirada diagnostikoan txertatzea.

EMAKUMEEN ETXEETAKO ERABILTZAILERAK

Horien izan da urteetan aldarrikapena, eta horiei esker daude baita ere udal ekipamenduak martxan hainbat udalerritan. Erabiltzaileak dira etxea erabili eta gozatzeko dutenak, baita bidean izan diren korapiloak nahiz etorkizuneko erronkak identifikatzeko gaitasuna dutenak. Garrantzitsua izan da, diagnostikoan haien ahotsa barne biltzea.

Unibertsoa eta lagina

Ikerketa hau egiteko EAEko Emakumeen Etxe guztietara jo dugu, hots, 15 gunetara. Alta, horietatik 9k parte hartu dute prozesuan.

Hona hemen lurraldeka antolatuta EAEko Emakume Etxeak eta nabarmenduta ikerketan parte hartu dutenak:

Herrialdea	Emakumeen Etxe dagoen herria
Araba	Gasteiz
	Balmaseda
	Basauri
Bizkaia	Durango
	Ermua
	Ondarroa
	Portugalete
	Arrasate
	Azpeitia
	Donostia
Gipuzkoa	Eibar
	Errenteria
	Hernani
	Zarautz
	Zumaia

Metodologia

Datuen jasoketa egiteko, metodologia kuantitatibo zein kualitatiboan oinarritu gara. Lan prozedura misto horrek, aukera eman digu aztertu ditugun aldagaiak deskribapen hutsetik harago, testuinguruarekin harremanetan jarri eta ondorioztatze ezberdinetara heltzeko. Txosten honetan, jarraian deskribatzen diren teknika guztien emaitza jasotzen da:

LEHENENGO ETA BIGARREN MAILAKO DOKUMENTUEN HUSTUKETA

Emakumeen Etxeen inguruan idatzi diren dokumentuen lagin bat aztertu dugu. Batzuk, espazioei loturiko dokumentuak izan dira, iturri zuzenak: sorrerako dokumentuak, urteko memoriak, zerbitzuen gaineko balorazioak, ikastaroen ebaluazioak etab. Eta beste batzuk aldiz, bigarren mailakoak edo iturri ez zuzenak, hots, aztergai honetan orain arte egin diren ikerketa ezberdinak. Hor eskuratutako informazioak, testuingurua hobeto ezagutzeko aukera eman digu eta halaber, datuen bilketan oinarritzea izan den galdetegia diseinatzeko lagundu digu.

Honakoak dira nagusiki lagundu diguten erreferentziak:

- Andino, Susana, (2017). *La casa de las mujeres de los barrios altos de bilbao (san francisco, bilbao la vieja y zabala). Una reivindicación feminista en barrios transitando de la marginalidad hacia la gentrificación*. UPV/EHUko Ikerketa Feministak eta Generokoa Unibertsitate Masterreko Amaierako Lana.
- Bilboko berdintasun arloa, (2020). *Investigación sobre la realidad de las casas de las mujeres como espacios de empoderamiento*. Bilbo, Berdintasun.

- Elhuyar. (2021). *Hacia un modelo de Casas de las Mujeres de Gipuzkoa: Características principales y retos de futuro*. (or. 1-70). Gipuzkoako Foru Aldundia. <https://www.gipuzkoa.eus/documents/13448758/97cb0405-2698-e75e-8075-b0c1713f19ed>

- Emagin eta EHF, (2017). *Indar bat gara gu. Euskal Herriko Bilgune Feministak 15 urte*. Andoain, autoekoizpena.

- Esteban, Mari Luz, Fernández, Irantzu, & Fernández de Labastida, Ixone (2021). *Adineko emakumeekin lan egiteko gakoak EAE-euskal autonomia erkidegoko emakumeen etxeekin egindako proiektua*. Emakunde. https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_guias/eu_def/adjuntos/gakoak_adineko_emakumeak.pdf

- Esteban Galarza, Mari Luz (2021). *Komunitateak ehunduz herriri ekimenetatik. Euskal Herriko Unibertsitatea*. <https://addi.ehu.es/handle/10810/47765>

- Esteban Galarza, Mari Luz (2017). *Feminismoa eta politikaren eraldaketak*. Zarautz, Susa argitaletxea.

- Salda badago lan taldea, ((2020). *Salda Badago: Euskal Herriko V. Jardunaldi feministak*. Donostia, autoekoizpena.

INKESTA

Behin dokumentazioaren errebisioa eginda, Emakumeen Etxetako dinamizatzaile ala teknikariei on-line bidez igorri zaien galdetegia diseinatu dugu. Bilboko Galtzagorri Elkarte Feministarekin kontrastatu eta adostu da fase hori.

10 atal ezberdinetan banatutako 43 galderek mamitu dute galdetegia: **1)** sortze prozesua, **2)** izaera, **3)** kudeaketa eredua, **4)** funtzionamendua, **5)** finantzazioa, **6)** ekintza eta zerbitzuak, **7)** parte-hartzea,

8) azpiegitura, 9) komunikazioa eta 10) balorazioa. Datuak jasotzeko erabili den bidea, PDF betegarri bidezkoa izan da. Txantiloian galderak euskaraz egon dira idatzita, nahiz eta bakoitzak nahi duen hizkuntzan bete ahal izan dituen erantzunak; bakarrak egin du gaztelaniaz. Halaber, dinamizatzaile ala teknikariek aukera izan dute PDF betegarrian emandako informazioa lehenengo mailako dokumentuak atxikituz osatzeko. Galdetegia betetzen pasatako denbora, batez beste 30 minutu ingurukoa izan da eta hartzaileek hilabete eta erdiko (abendua erdialdetik urtarrilaren amaierara) epea izan dute horretarako.

Guztira, 15 espaziotara bidali da galdetegia eta 9 erantzun jaso dira. Emakumeen Etxeekin harremana egiteko iturri ofizialetara jo da, Udal ala espazioen webguneetara, alegia. Horien bidez eskuratu dira guneetako helbide elektronikoak eta bertara igorri zaie galdetegia. Datuen jasoketan bezala, euskara izan da komunikazioan erabilitako hizkuntza. Erantzunak jasotzeko, dinamizatzaile eta teknikarien atzetik ibili beharra gailendu da talde teknikoak; e-mail bidezko harremanaz gain, telefonoz ere deituz. Esan behar da, jaso diren erantzun kopurua baino handiago izan dela txantiloia betetzeko asmoa agertu duten Emakumeen Etxeak. Alta, ondoko hauekin ez da behin ere harremanetan jartzea lortu: Balmaseda, Durango, Ermua eta Portugalete.

Behin galdetegiaren emaitzak jasota datuen ustiaketari ekin zaio, horretarako prozedura kuantitatiboak erabiliz. Prozedura honen bidez ateratako ideia nagusiak, erabiltzaileekin izandako eztabaidak gidatu dituztenak izan dira.

TALDE EZTABAIDA

Teknikari eta dinamizatzaileek helarazitako informazioan sakontzeko, erabiltzaileengana jo dugu. Horretarako, talde-eztabaida bat egin ditugu online bidez. Ikerketa prozesuan interesgarritzat identifikatu diren profilak elkartu ditugu urrats honetan, hain zuzen: Emakumeen Etxeetan erabiltzaile diren, jardueretan parte hartzen duten eta elkartegintzan diharduten feministak. Horiekin harremana egiteko, dinamizatzaile eta teknikarien bitartekaritza ezinbestekoa izan da. Zehazki, ondokoak dira talde eztabaidan parte hartu duten erabiltzaileak:

Emakumeen Etxea	Kide kopurua
Marienea (Basauri)	1
Etxelila (Ondarroa)	4
Arrasateko Emakume Txokoa (Arrasate)	1
Kulturarteko Plaza Feminista (Hernani)	1

ELKARRIZKETA SAKONA

Erabiltzaile batek talde eztabaidan parte-hartzeko interesa agertu zuenez baina ezarritako hitzorduan bertaratzea ezinezkoa zitzaionez, berarekin bakarrik bildu ginen egun batzuk beranduago. Hona hemen elkarrizketatu horri buruzko datuak:

Emakumeen Etxea	Kide kopurua
Donostiako Emakumeen Etxea (Donostia)	1

Gauzak horrela, orotara 8 erabiltzailearen ahotsa biltzen da ikerketa honetan, denak Bizkaia eta Gipuzkoakoak. Beraiekin izandako so-lasaldietan galdetegietako ardatz berak landu dira, baina inkestak baino izaera zabalagoa izan dute, erdi egituratutako gidoiak baliatu baitira talde-eztabaida zein elkarrizketa sakonean. Esan nahi da, ikertutako subjektuen arabera elkarrizketa norabidetzeko malgutasuna izan dela. Halaber, galderak irekiak izan dira, modu horretan, erabiltzaileen erantzunak ahalik eta gutxien baldintzatuz. Bereziki, Emakumeen Etxeek gertuko ingurune sozial eta feministan izandako eraginean, parte-hartze prozesuetan, emakumeen presentzia eta absentzietan eta etorkizuneko erronken auzian jarri da arreta.

Erabiltzaileen eskutik, ordura arte ikerketan zehar jasotako informazioarekin alderagarriak diren datuak jaso dira. Azken horien analisia, prozedura kualitatiboen bidez burutu da.





EMAITZEN ANALISIA

Emakumeen etxeak: aterpe propio bat

Ahalduntze prozesuak, nor bere gogo-gorputzak baliolan jartzeko eta aitortzeko prozesuak dira, izan pertsona mailakoak izan talde mailakoak. Ikergai honetara ekarrita, emakumeon* ahalmenaz eta botereaz jabetzeko prozesu indibidual eta kolektiboekin lotuko genuke. **Emakumeen Etxeak**, bestalde, emakumeen parte-hartze sozio-politikoaren bultzatzen duten guneak izaki, modu zuzen ala zeharkakoan emakumeen ahalduntze hori indartzeko gune dira. Tokiko mugimendu feministaren eskaeratik eta erakunde publikoen arteko lankidetzatik sortuak dira gehienak. Euskal Herrian ireki ziren gisa honetako lehenengo aterpeak Ermuko Emakumeen Topalekua eta Arrasateko Emakume txokoa dira, biak ala biak, 2003koak. Ateak irekitzen azkena, berriz, Hernaniko Kulturarteko Plaza Feminista izan da, 2021ean egin zuelarik.

Begirada feminista da espazio horien guztien oinarrian eta hortik hezurramitzen dira beste printzipio zehatzago batzuk: gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze soziopolitikoaren indarkeria matxistari aurre egitea, parekidetasunaren aldeko norbanako eta taldeak saretzea eta beste. Elkarrekin topatzeko gune izatetik harago, espazio hauen izaera eraldatzailea, eragilea eta aldarrikatzailea azpimarratu behar da. Izan ere, jendarte parekideagoa, askeagoa, jasangarriagoa eta solidarioagoa sortzeko bokazioa dute. Horregatik mugitzen dira irekitasunaren, aniztasunaren, inklusibotasunaren eta tratu onen muga barruetan.

ARRASATE

-  2003
-  Publikoa
-  Goiz eta arratsaldez
-  emakumetxokoa@arrasate.eus
-  labur.eus/arrasateET

AZPEITIA

-  2011
-  Publikoa
-  Goiz eta arratsaldez
-  emakumetxokoa@azpeitia.eus

DONOSTIA

-  2010
-  Publikoa-kogestioa
-  Goiz eta arratsaldez
-  berdintasuna@donostia.eus
-  donostiakoemakumeenetxea.com





EIBAR

-  2004
-  Publikoa
-  Goiz eta arratsaldez
-  andretxea@eibar.eus /
berdintasuna@eibar.eus
-  labur.eus/andretxea

ONDARROA

-  2013
-  Kogestioa
-  Goizez
-  etxelila@ondarroa.eus






GASTEIZ

-  2019
-  Kogestioa
-  Goizez, arratsaldez eta asteburuetan
-  emakumeenetxea@vitoria-gasteiz.city
-  labur.eus/gasteizEE

HERNANI

-  2021
-  Publikoa
-  Goizez, arratsaldez eta asteburuetan
-  kulturartekoplazafeminista@hernani.eus
-  labur.eus/hernani

ERRETERIA

-  2019
-  Kogestioa
-  Goiz eta arratsaldez
-  emakumeenetxea@errenteria.eus
-  errenteria.eus/berdintasuna

BASAURI

-  2012
-  Kogestioa
-  Goiz eta arratsaldez
-  marienea@basauri.eus
-  berdintasuna.basauri.net

 Sortze urtea

 Kudeaketa

 Ordutegia

 Kontaktua

 Webgunea

emakumeen
etxeak

• SORTZE PROZESUA

Hogei urteko ibilbidea egin dute Emakumeen Etxeek EAEn eta elkarren artean komun ugari dituzten arren, ezin dira esperientzia berdintzat hartu. Hasteko, Emakumeen Etxeak tokiko beharretatik abiatzen direlako eta beraz, testuinguru jakinek hasieratik amaierara markatzen dutelako Etxeen izaera. Espazio hauen bueltan mugitzen direnek sortze momentua gako garrantzitsu bezala kokatzen dute izaera hori definitze aldera, orduan hasten baita proiektua ezaugarritzen.

Gaur-gaurkoz aktibo dauden espazioak aztertzen baditugu, sortze prozesu ezberdinak izan dituztela konturatu gaitzke. Kasu batzuetan, mugimendu feminista izan da halako gune baten beharra identifikatu eta eskaria erakunde publikoetara eraman duena. Kasu horietan, erakundeak eta herri mugimenduek elkarrekin xehatu ohi dituzte proiektuari loturiko erabaki guztiak, zenbaitetan, mugimendu feministan antolatu gabeko herritarrak ere inplikaturik prozesuan (adibidez, Errenterian, Hernanin edo Arrasaten). Alta, beste kasu batzuetan, Udaleko berdintasun sailak garaturiko politiken emaitza dira Emakumeen Etxeak (adibidez, Azpeitian edo Gasteizen). Halakoak gutxiengoak izateaz gain, esan behar da jendearen atxikimendua lortzeko bide luzeagoa egin behar izaten dutela, aipatu beste kasuetan proiektuaren eztabaida prozesua sozializatorako momentu gakoa izaten baita.

Ezberdintasunak ezberdintasun, sortze prozesu partehartzaileak dituzte ia Emakumeen Etxe guztiek gibelean eta horrek zoru egokia ezartzen du herritar andanak hasieratik bere egiteko proiektua. Alta, ikerketan azaleratu denez, parte hartze prozesuen aurreko urratsak ere berebiziko garrantzia du. Izan ere, parte-hartze prozesuak emankorrak izateko ezinbestekoa da aurrez halako espazio baten beharra eta aldarrikapena ingurune sozialean txertatuta egotea. Guk ikeritutako Emakumeen Etxeetan, oro har, tokiko mugimendu feminis-

taren aldarrikapen historikoa izanda espazio propio baten beharra eta horrek bermatu du osteko parte-hartze prozesu luzeak hasieratik amaierara arrakastaz burutzea.

Prozesu partehartzaileek, bestalde, tokiko beharren araberrako proiektuak diseinatzea ere ahalbidetzen dute. Zentzu horretan, nabarmenezkoa da espazio hauen behetik gorako logika: udal ekipamenduen barruan kokatu arren, herritarren iritzia kontutan hartuta eraiki direlako. Eta herritarrak esan dugu, baina, egiari zor, zuzenagoa litzateke emakumeak esatea eta zehazki, emakume feministak. Izan ere, tokiko mugimendu asoziatiboan (feministan edo bestelakoetan) antolatutako zein antolatu gabeko emakume feministak dira espazio hauen sortze prozesuetako protagonistak.

Azkenik, aipatu behar da sortze prozesuak emankorrak direla instituzio eta mugimendu feministaren arteko harremanak estutze aldera ere. Batzuetan, aurretik sortutako Emakumeen Kontseiluak edo antzeko marko partekatutako indartzeko balio izan dute eta beste batzuetan, erabakigune berriak sortzeko. Azken horiek, Emakumeen Etxeen kudeaketari loturiko elkarte edo batzarrei dagozkie.



Ikerketan parte hartu duten **Emakumeen Etxeak**

SORTZE URTEAK ETA KOKAPENAK



• IZAERA

Emakumeen Etxeek abiapuntutzat hartzen dute gaur gaurkoz emakume eta gizonen arteko berdintasuna ez dela existitzen. Hori oinarri izanda, gizarte parekideagoak sustatzeko tresna gisa ulertu behar dira guneok. Eta noski, helburu horrekin bat egiten duen oro da ondo etorria bertan.

Nahiz eta askotariko izaerak izan, helburuetan eta funtzioetan topatu daitezke Emakumeen Etxeen artean antzekotasunik handienak. Honela laburtu genitzake gune berauen helburuak:

- Emakumeen ahalduntzean sakontzea; auto ezagutza, autonomia, elkar ezagutzaren eta prestakuntzaren bidez.
- Tokiko emakumeen eta parekidetasunaren alde diharduten talde/elkarteen arteko saretzea eta lankidetzat bultzatzea.
- Kontzientzia feministan eta berdinzalean sakontzea eta horren aldeko partaidetza sozio-politikoak lantzea.
- Indarkeria matxistari aurre egin dioten emakumeentzako* baliabide eta tresnak eskaintzea.

Gauzak horrela, proiektu hauen funtzio nagusi gisa definituko genituzke parte hartzea sustatzea, formazioan sakontzea eta informazio nahiz baliabideak eskaintzea. Denak ala denak, gizon eta emakumeen artean parekidetasuna indartzeko.

• KUDEAKETA EREDUAK

EAEko Emakumeen etxeak instituzio publikoen eta mugimendu feministaren arteko lankidetzatik sortu dira. Gisa horretan, aurrekari bat ezartzen da Europa mailan; kudeaketa guztiz instituzionala duten ereduak edo kontrara, instituzioekiko erabat autonomoak direnak topatzen baitira nagusiki (Elhuyar, 2021).

Herri mailako mugimendu feministei eta emakumeen elkartei

zor zaie, batez ere, proiektu hauen gauzatzea. Beraiek izan dira Euskal Herrian barrena halako espazioen beharra aldarrikatzen lehenak eta lan eskerga egin dute horien gauzapenerako. Zenbait herritan Udal gobernuek kolektibo horien eskariari heldu eta espazioa gauzatzen lagundu dute, hala, sarri elkar topatzen ez duten eremu publiko eta eremu komunitarioak bat eginez.

Kudeaketa eta funtzionamenduari dagokionean, gaur gaurkoz bi eredu topatu ditzakegu:

1) Udal-kudeaketa: eredu honetan, Udaletxetako Berdintasun Sailaren ardura da espazioaren kudeaketa, finantzazioa eta eskaintza definitzea zein garatzea. Adibidez, hau da Arrasate, Azpeitia, Eibar, Hernani edo Gasteizko Emakumeen Etxeetan indarrean dagoen kudeaketa eredu. Alta, azken erabakia Berdintasun Sailarena izanik ere, ehun-sozialarekin eta herri mugimenduekin kontrastatzen dituzte erabakiak, horretarako partaidetza bide ezberdinak erabiliz:

a. Partaidetzarako berriazko organo iraunkorraren bidez: zenbait Udalerritan Emakumeen Etxeari buruzko erabakietan eragina duen partaidetza-organoa bat dago (Emakumeen Mahaia, Berdintasun Kontseilua). Partaidetza-organok horiek Udalaren eta tokiko emakumeen elkartearen eta mugimendu feministaren arteko elkarrizketa-gune formalak dira. Bertan adosten dena ez da loteslea, nahiz eta aitortza handia izan Udalaren aldetik. Funtzionatze-ko eredu hau daukate, esaterako, Azpeitia, Hernani edo Eibarren.

b. Partaidetzarako berriazko organo iraunkorrik gabe: tokiko emakumeen elkarteekin edo mugimendu feministarekin aztertu eta lantzen dira Etxeari buruzko erabakiak, bereziki, programazioarekin zerikusia daukatenak, baina kasu honetan ez dago funtzio espezifiko hori duen eta Berdintasun sailari loturik dagoen organo iraunkor eta formalik. Horren faltan, Emakumeen Etxetik egiten da elkarte edo mugimenduekin harremana, eta ez

du esan nahi parte-hartzea txikiagoa denik. Funtzionatzeko eredu hau dauka, esaterako, Arrasateko Emakume Txokoak.

2) Kogestioa: eredu honetan, Emakumeen Etxeko kudeaketa partekatua da Udaleko Berdintasun arloaren eta beren-beregi horretarako sortutako elkarte edo batzar baten artean. Azken horiek, etxeen sortze prozesu parte hartzaileen emaitza dira. Esate baterako, horrelako eredu baten baitan funtzionatzen dute: Donostia, Basauri, Ondarroa eta Erreterian. Azken bien kasuan, ez dago kudeaketarako elkarte bat, ondoren azalduko dugun bezala.

a. Donostiaren kasuan, udalaren eta elkarte baten arteko hitzarmen baten bidez formalizatzen da kogestioa. Hitzarmenaren barruan sartzen da elkarteak kudeatzen duen diru partida bat: giza baliabideak, baliabide materialak eta/edo jarduerak kontratatzen. Horrez gain, elkarteak diru iturri propioak ere bilatzen ditu, adibidez, diru-laguntza bidez. Kogestio-organoak dituzte, eta horietan udaleko eta Emakumeen Etxeko elkartekoek parte hartzen dute. Emakumeen Etxeko elkartearen, aldiz, emakumeek parte hartzen dute, maila indibidualean zein hiriko elkarte edo taldeen ordezkarietan. Modu asanblearioan funtzionatzen dute eta lantaldeen bidez antolatzen dira.

b. Gasteizko Emakumeen Etxeak ere kudeaketa eredu bertsua izan zuen 2019tik 2021ra arte. Sortze prozesuaren ondotik, horretarako berariaz eraturako Sorginenea elkarteak Udalarekin batera kudeatzen zuen proiektua, lankidetzaren bidez. Alta, 2021etik aurrera, Sorginenea uko egin zion proiektua kudeaketez, hausnarketa prozesu bati ekiteko. Horregatik, Gasteizko Udalak, Berdintasun Zerbitzuaren bidez, bere gain hartu zuen Emakumeen Etxearen kudeaketa aldi baterako. Gaur gaurkoz, Sorginenea elkarteak aktiboki parte hartzen du Etxean; batez ere, liburutegi feministaren ardura eta kudeaketa darama eta hainbat prozesu eta talde bultzatzen ditu: hala nola, autodefentsa feminista taldea eta mintzalaguna feminista.

c. Basauriren kasuan, urteko lizitazioen bidez gauzatzen da kogestioa Marienea elkarte eta Udalaren artean. Orain arteko kontratu guztiak urte betekoak izan dira baina proiektua hasieratik elkarteari esleitu zaio. Marienea elkarteak talde eragile ireki eta anitza du, eta hilean behin biltzen da proiektuarekin zerikusia duten gaiak jorratzeko. Egun, Basauriko Emakumeen Etxeak bi dinamizatzaile ditu, biak ala biak Marienea elkarteak kontratatuta. Praktikan, dinamizatzaileek programatzen dituzte jarduerak, elkartearen hasierako proposamenekin eta ondorengo kontrastearekin. Elkarteak, bestalde, gai administratiboez eta proposamenak balioztatzeaz arduratzen da. Marienea Elkartearen langileen (dinamizatzaileen) betekizunetako bat elkarteko kide izatea da.

d. Ondarroako Etxelilan, udalaren eta Udal Berdintasuna kontseiluaren artean ematen da kogestioa. Hasiera batean, dinamika propioa zuen Etxelilaren jardura batzordea sortu zen, baina gaur egun Udal Berdintasun Kontseiluan integratuta dago eta loteslea da bertan erabakitzen dena. Kontseilua hilean behin elkartzen da eta bertan parte hartzen dute herriko emakume elkarte, talde feminista eta norbanakoek, Udaleko Berdintasun teknikariak eta Etxeko dinamizatzaileak gain. Azken hau, udalak azpikontrataturako enpresa bateko (Urtxintxa Atsedendiko Eskola-ko) langilea da. Programazioa, Udaleko Berdintasun Saila (ar-loko zinegotzi arduraduna, teknikaria eta Etxeko dinamizatzailea biltzen dira bertan) eta Berdintasun Kontseiluaren artean definitzen da, eta horren kudeaketaz, Etxeko dinamizatzailea arduratzen da.

(1)Etxekide izan daitezke: 16 urtetik gorako emakumeak, feminismoaren eta berdintasunaren inguruan sentsibilitate berezia dutenak edo helburuarekin erlazionatutako ekintzak garatzen dituztenak. Finean, Emakumeen Etxearen balioak sustatzeko ekintzak garatzeko eta lan egiteko konpromisoa hartu nahi duten Erreterian edo beste edozein udalerritako emakume guztiak. Etxekide izateak Batzarrean, koordinazio-organoan eta lantaldeetan parte-hartzeko aukera ematen du.

e. Erreterria kasuan, hiru organoren bidez kudeatzen da Etxeko jarduna: batetik, *Batzarra* dago zeina Etxearen inguruko erabakigune-nagusia den. Bertan parte hartzen dute: 2 berdintasun-teknikariak, berdintasun-zinegotziak eta Etxekide¹ gisa izena emanda dauden norbanakoek. Izaera asanblearioa du eta urtean hiru-lau aldiz biltzen da. Asanblada horretatik, *lantaldeak* sortzen dira, eta hain zuzen ere, hori da bigarren kudeaketa-organoa. Momentu honetan sei lantalde daude, beharren arabera sortuak. 6 talde horietako ordezkariak, *koordinazio-organo* batean biltzen dira eta hori da azken kudeaketa-organoa. Koordinazio-organo horretan, *Batzarrean* adostutakoak marko gisa hartuta, unean uneko erabakiak hartzen dira. Bertan, berdintasun-zinegotziak, berdintasun-teknikari batek eta lantaldeen ordezkariak parte hartzen dute. Hilean behin edo bi hilean behin biltzen da.

Elhuyar fundazioak (2021) Emakumeen Etxeei buruz Gipuzkoa mailan egindako ikerketa batean, kogestio ereduaren zailtasunez ohar-tarazten zuen. Honela zioen:

Sarri ez dago argi zein izan behar den erakunde publikoen zeregina eta zein herritarrena, zer espero den erakunde bakoitzarengandik, zer eska dakiekeen batzuei eta besteei, zer bermatu behar duen haietako bakoitzak. Eta, beraz, bakoitzaren zeregina argitzeko beharra agertzen da; bereziki, erakunde publikoena, urteetan zehar emandako aurrerapenak sendotzeko. (Elhuyar 2021, 15)

Ikerketa honetako datuak aztertzean, argi ikusten da lankidetzaren hori hobetze aldera, Emakumeen Etxeetako dinamizatzaileek eskari zehatza dutela erakunde publikoentzat: diru inbertsio handiagoa egitea beharrezko bitarteko eta baliabideak izateko. Emakumeen Etxeak zerbitzu publiko bat eskaintzen duten Udal ekipamenduak dira, alta, giza baliabide gehiago eta eraikin handiagoak zein irisgarriagoak aldarrikatzen dituzten beraien funtzioa hobeto betetze

aldera (Eibar, Arrasate edo Donostian, adibidez).

Zentzu horretan, bakoitzaren funtzioak argitzeaz gain, espazio hauek indartzeko garrantzitsua da Etxeek aurrekontu propioa izatea eta Etxearen ezaugarri arkitektoniko eta espazialek bertako jarduera baldintza duinetan garatzeko prestatzea.

• FUNTZIONAMENDU EREDUAK

Salbuespena dira Barne Araudi propiorik ez daukaten Etxeak (Eibar eta Azpeitia) eta kasu horietan, Udaletxeko araudi orokorrarekin funtzionatzen dute. Era berean, salbuespena dira soilik goizez ala arratsaldez irekitzen dituzten Etxeak; nahiz eta astegun guztietan ordutegi bera ez mantendu, ohikoan goiz eta arratsaldetan egoten dira Emakumeen Etxeak zabalik. Goizetan, batez ere, zerbitzuekin lotutako dinamika izaten da eta arratsaldetan, berriz, programazio zabalagoa. Hori horrela, esan daiteke batez ere aste barrura mugatzen da Emakumeen Etxeen funtzionamendua, baina badira aste-buruetan ere atek irekita mantentzeko ahalegina egiten dutenak, hala nola, Hernani, Gasteiz edo Basauri. Lehendabizikoan, Kulturarteko Plaza Feministako dinamizatzaileak dira asteburuetan lan egiten dutenak eta azken bietan, erabiltzaileek aukera izaten dute ordutegi ofizialetatik kanpo ekintzak bertan egiteko.

Etxe guztietan dago espazioa kudeatzeko eta etxeko jarduerak aurrera ateratzeko kontratupeko langile bat gutxienez. Pertsona hori, udaletako berdintasun-teknikaria, Emakumeen Etxeko koordinatzailea edo dinamizatzailea izan daiteke. Gehienetan Udalak kontratatutako langileak izaten da baina kogestioaren ereduak duten Etxeetan, elkarteko langileak ere izan daitezke. Adibidez, Donostiako Emakumeen Etxean, bi dinamizatzaile daude: bata, Udaletxeak kontratatutakoa da eta bestea, elkarrekin. Ondarroako Etxelilako eta Azpeitiako Emakumeen Etxeko dinamizatzaileak salbuespen gisa ai-

patu daitezke, biak ala biak Udaletxeak azpikontrataturako aisialdi elkarteko langileak baitira.

Etxeko dinamizatzailaz gain, Emakumeen Etxean eskaintzen diren zerbitzu ezberdinak ere azpikontratatu dituzte Udalak kasu batzuetan. Horrela da, esaterako, sexologoa Marienean, etxeko langileen aholkularitza Donostian eta psikologoa Erreterian.

• FINANTZAZIOA

Emakumeen Etxeen finantzaketa tokiko Udal aurrekontuetatik dator nagusiki. Aurreko puntuan (kudeaketa ereduak) deskribatu bezala, etxe kogestionatuen kasuan, finantzaketa horren zati bat elkarteekin egindako hitzarmen edo lizitazioen bidez bideratzen da. Eredu publikoko Etxeen kasuan, berriz, Udaletako Berdintasun Saitetik heltzen da. Udaletik eratorritako aurrekontu hori, beste sail batzuen edo beste erakunde publiko batzuen finantzaketa puntualarekin osatzen da, esate baterako, Emakunde edo Foru Aldundietako diru-laguntzak.

Jasotako datuen arabera, aurrekontuak 106.000€tik 479.000€ artekoak dira; baina zenbaki horiek ez dira baitezpada Emakumeen Etxeekin lotu behar, zenbaitetan, Berdintasun saileko diru kopuruei baitagokie. Batik bat, pertsonalaren gastuetara eta ahalduzko eskolara bideratzen da diru kantitate handiena.

• LAN ILDOAK, EKINTZAK ETA ZERBITZUAK

Emakumeen Etxeetako ekimen eta zerbitzu oro gizarte berdintza-leagoak sustatzera dator. Hori da espazio hauen misio behinena. Zentzu horretan, hamaika ildo jorratzen dituzte eta alde horretatik ez dago alde handirik espazio batetik bestera. Teknikariei luzatutako galdetegian, ondoko lan lerroak aipatu dituzte:

- Emakumeen autoezagutza eta ahalduzko
- Indarkeria matxista
- Mugimendu feministak
- Genealogia feministak
- Gorputzak
- Sexualitateak
- Genero identitateak
- Feminismoa antiarrazizistak
- Pobreziaren feminizazioa
- Feminismo antikapitalista
- Elkartegintza
- Aniztasun kulturala
- Ekonomia feminista

Jasotako erantzunetatik azpimarratu daitezkeen beste datu bat, zera da: Etxe batek ere ez duela antikapazitismoaren gaia genero ikuspegiatik lantzen, modu puntualean ez bada. Aitzitik, aipatu beste lan ildoak garatzeko orotariko ekimenak aktibatzen dituztela, besteak beste: ahalduzko eskola, zerbitzuak, hitzaldiak, hausnarketa proiektuak, talde egonkorak, kultura adierazpideak edo kirol izaerakoak.

• AHALDUZKO ESKOLAK

Ziurrenik, ekimen guzti horietatik Emakumeen Etxeak ardatzen dituen ahalduzko Eskola da. Udaletako Berdintasun Arloek edo Zerbitzuek bultzatutako proiektuak dira Jabekuntza Eskolak, emakumeen parte-hartze soziala eta politikoa sustatzeko nahiz emakumeen ahalduzko indibiduala, kolektiboa eta eragin politikoa indartzeko.

Bizkaian, 1963 eta 1964 urteetan aurrezki kutxen laguntzarekin sortutako "Emakumearen Sustapenerako Zentroak" deituriko espazioen oinordekoak dira eskolak. Espazio horiek, emakume askorentzat elkargune eta prestakuntzarako gunek izan ziren. Ez da izango 80ko hamarkadara arte, ordea, eskolen egitasmoa ofizialki egikaritzen hasteko unea. Gari horretan, mugimendu feministaren eragina erakunde publikoetara zabaltzen hasi zen, besteak beste, Emakunde eta udaletako berdintasun-zerbitzuak sortuz. Hain zuzen ere, Uda-

letako berdintasun arloari loturiko teknikariek sustatuko dituzte proiektuok. Lehenengoa, 2003. urtean jarri zen martxan Basaurin, eta harrezkero ekimen hori indarra hartzen joan da, harik eta egun EAE mailan dauden hogeietara iritsi arte (Bilboko Berdintasun Arloa, 2020).

Udalerrri batzuetan, Emakumeen Etxeak jabekuntza-eskolak baino lehenagokoak dira, hala nola, Ermuan edo Arrasaten. Beste batzuetan, berriz, kontrakoa gertatzen da: Basaurin, Ondarroan edo Gasteizen, lehenengo jabekuntza-eskolak sortu ziren eta gero Emakumeen Etxeak. Nolanahi ere, helburu berak dituzten espazio osagarriak dira, Etxeak eskolen jarduerak egiteko espazio fisikoa baitira. Etxe gehienetan, ahalduz eskolen baitan garatzen dira prestakuntza-jarduerak gehienak baina hortik harago ere badaude bestelako programazio batzuk. Horregatik guztiagatik, Emakumeen Etxeek euren sare propioa duten gisa berean dute Bizkaiko eta Gipuzkoako jabekuntza eskolek ere beraiena.

Jabekuntza eskolen programazioak udaletako Berdintasun Arlo eta Zerbitzuetan diseinatzen dira, Etxeen elkarteetan, udalerriko mugimendu feminista eta bestelako elkarteetan eta parte hartzeko beste organo batzuen parte-hartzearekin. Eskola batzuetan, programazioa urtean behin iragartzen da, egitarauak ikasturte formatua duelarik (irailetik urrira); beste batzuetan, berriz, bi alditan argitaratzen da: bata udazkenean eta bestea udaberrian.

Emakume Etxeetako ekimen eta jabetze eskolak albo batera utzita, heldu diezaiozun orain zerbitzuen gaiari. Jarraian ikusiko dugun taulan azaltzen dira ikerketa honetan parte hartu duten Emakumeen Etxeek zein zerbitzu eskaintzen dituzten.

Etxe guztietan topatu ditzakegu ondoko zerbitzuak: emakumeentzako arreta- eta harrera-zerbitzua, ahalduz edo jabetze eskola eta espazioen lagapena. Nahiz eta taulan ez esplizitatu, ahalduz

eskolen barruan ohikoa da tailer, hitzaldi eta bestelako ekimenekin batera topaleku iraunkorrak ere izatea, eta zenbait Etxek topaleku horiek zerbitzuen barruan kokatzen dituzte; Basauriko Elkargunea (emakume elkarteetan eta feministen topagunea) edota Azpeitiako partaidetza sozialerako gunea (berdintasunaren alde diharduten norbanako zein kolektiboek erabili dezaketen espazioa) izan daitezke horren adibide. Aipatutakoez gain, dokumentazio ala liburutegi zerbitzuak ere arrakasta handia duela ikusi daitezke. Zerbitzuei buruz hitz egiterakoan, hauen aniztasuna azpimarratuko genuke, arretatik hasi eta ahalduz arteko eremu zabala hartzen baitute.

Taulan islatzen denez, biztanle kopuru handiagoa duten Udalerrietako Emakumeen Etxeek zerbitzu gehiago eskaintzen dituzte gutxiago dutenek baino, alta, batzuen eta besteen arteko aldea ez da handia. Nolanahi, gisa honetako espazioen izaera integral eta kalitatezko eskaintzaren seinale da hori, lekuan leku gizarte funtzio garrantzitsua betez.

Ekintza eta zerbitzuei buruzkoak azaltzerakoan, ezinbestean esan behar da modu partehartzailean osatzen dela Emakumeen Etxeetako eskaintza. Zentzu horretan, azpimarratzekoa da arduradun politiko eta teknikoaren jarrera irekia, jasotzen diren eskariak bideratzen ahalegintzen baitira. Eskari horiei buruzko erabakiak, tokiko emakumeekin eta mugimendu feministarekin partekatutako parte hartze gune iraunkorretan hartzen dira gehienetan. Halaber, ekimen hauen irisgarritasuna ere balioan jartzeko modukoa da, oro har, doakoak baitira, baliabide ekonomiko eza ez izateko ikastaro eta zerbitzuetarako sarbidea oztopatzeko motibo. Ordaindu behar den kasuetan, berriz, prezio sinbolikoa ezartzen da. Azkenik, Emakumeen Etxeetako ekintza eta zerbitzuak emakumeek* emakumeentzako* egindakoak direla aipatu behar da, nahiz eta puntualki gizonezkoiei zuzendutako ala gizonezkoek parte hartu dezaketen ekimenak ere programatu.

EMAKUMEEN ETXEEK ESKAINTZEN DITUZTEN ZERBITZUAK:

	Arrasate	Azpeitia	Basauri	Donostia	Eibar	Errenteria	Gasteiz	Hernani	Ondarroa
Informazioa eta harrera	●	●	●	●	●	●	●	●	●
Ahalduntze eskola	●	●	●	●	●	●	●	●	●
Elkargune iraunkorrak edo/eta espazioen lagapena	●	●	●	●	●	●	●	●	●
Dokumentazio/Liburutegi feminista	●	●	●		●	●	●	●	●
Lege-aholkularitza	●	●	●	●		●	●		
Sexualitate-aholkularitza			●	●		●	●		
Norbanakoaren jabeakuntza eta laguntza psikologikoa			●	●		●			
IKT eta internet		●		●		●	●	●	●
Ikasketa eta prestakuntza homologazioa	●			●		●			
Besterik				1	2,3		2,4,5		6

- 1: Desgaitasuna dutenei gizarte laguntza
- 2: Etxeko langileentzako edo/eta zaintzaileentzako aholkularitza
- 3: Ikuspegi ahalduntzailea duten gaztelania-eskolak
- 4: Almanake morea, feminismoa euskaraz zabaltzeko
- 5: Ikerketa feministen erakuslehoia
- 6: Artegintza tailerra

• PARTE-HARTZEA

Etxeetan parte hartzen duten pertsonen azterketari dagokienez, datuak biltzeko sistema ezberdinak erabiltzen dituztela jakin dugu eta, beraz, ezin da konparaziorik egin eremu honetan. Etxe guztietan jasotzen dira jabetze eskoletako erabiltzaileen datuak, alta, hortik haragoko zerbitzu eta ekimenetako datuen jasoketa ahulagoa da. Halaber, datuak jasotzen direnean, Etxe bakoitzak bere irizpideen arabera egiten du, sistematizaziorako prozedura orokorrik ez dagoelarik. Salbuespena dira Udaleko datuak biltzeko sistema eta aplikazioak erabiltzen dituztenak.

Gauzak horrela, ezinezkoa da parte-hartzaileen soslai zehatza jakitea, baina emandako datuetatik hauteman daiteke gehienak 40-65 urte arteko emakumeak direla, Euskal Herrian jaiotako, goi-mailako ikasketadunak eta enplegatuak. Parte-hartze soslai anitzagoa izate aldera, Hernaniko Kulturarteko Plaza feminista moduko espazio partekatuek egiten duen ekarpena azpimarratuko genuke. Etxe horretan biko ardatza lantzen baita: feminismoa batetik, eta aniztasuna zein lankidetzat bestetik. Herriko eragile feministez gain, Amher SOS Arrazakeria kolektiboa ere bertan instalatuta egoteak laguntzen du bertan jaiotako eta kanpotik etorritako pertsonen arteko harremanak.

Azkenik, parte-hartzearen puntu honetan Etxe hauek mugimendu feministarekin daukaten harremanari erreparatuko diogu. Izan ere, Emakumeen Etxeak ez dira laguntza- edo aisialdi-baliabide bat, baizik eta eraldaketa sozialerako tresna bat. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko espazioak dira, eta baita horren motore den mugimendu feminista elikatze ere. Zentzu horretan, ikuspegi feministarekin bat egiten duten talde eta norbanakoekin aliantzak gauzatu eta elkarlana indartzeak berebiziko garrantzia du.

Emakumeen Etxeak laguntza- edo aisialdi-baliabide huts bihurtzeko arriskua saihesteko bide nagusia, tokiko mugimendu feministare-

kin zein emakume-elkartekin lotura mantentzea da. Hori zaintzen ez bada, ez bada elikatzen, ez bada sustatzen, itzali egiten da eta horrek, borondate politikoaz gain eguneroko jarrera eskatzen du. Ildo horretan, guk jasotako emaitzak positiboak dira, mugimendu feminista oro har Emakumeen Etxeko dinamikatik gertu edo barnean kokatzen baita. Puntu honetan, garrantzitsua da bakoitzaren funtzioak argi izatea, osterantzean, Emakumeen Etxeko dinamika Mugimendu Feministaren jarduna xurgatu baitezake, azken hori ahulduz.

Zenbat eta mugimendu feminista indartsuago izan, orduan eta Emakume Etxe sendagoa izango da eta bide horretan zaindu, lagundu eta elikatu beharreko harremana da.

• AZPIEGITURA

Askotarikoak dira Emakumeen etxeek dituzten azpiegiturak. Orotara dira udal eraikinak, udalerriko beste hainbat zerbitzu edo egitasmoen gisara. Dena dela, herri batetik bestera asko aldatzen da emakumeen topaleku izateko baliatutako espazioa, eta argi eta garbi diote erabiltzaile zein bertan lanean diharduten teknikariek azpiegitura egokiak behar direla, oso garrantzitsua dela espazio handiak eta egokituak sortzea. Kasu batzuetan ordea, espazioak txikiak dira eta ez dago sortutako dinamika guztia garatzeko nahikoa lekurik. Horrenbestez, edozein proiektu abiatzerako garaian ezinbesteko da azpiegiturretan zein eskaintzen diren baliabideetan arreta berezia jartzea, eta erabiltzaileekin adostea zein jarduera eramango diren aurrera eta, ondorioz, zein espazio behar diren.

Donostiako, Eibarko, Ondarroako eta Arrasateko txokoetan espazioarekin ez daude guztiz konforme. Orain dela urte mordoxka bat sortu ziren eta ibilbide oso oparoa izan dute. Duten jarduerarako gela zein bulego kopurua murrizta da, eta zerbitzu espezifikoak

eskaintzeko ez dute aparteko tokirik. Horren ondorioz, erabilera anizkoitzeko gelak dituzte bilerak egiteko, ikastaroak emateko zein zerbitzuak eskaintzeko, eta mugatu behar izaten dute jarduera ez duelako espazioak ematen. Ondarruko kasuan gainera, espazioa gaztelekuarekin partekatzen dute, eta elkarrizketetan adierazi dutenez aspaldiko aldarrikapena dute berariazko espazioa sortzea, eta emakume guztien beharretara egokituia izatea.

Horren aurrean badira inbertsio handia egin duten herriak, eta emakumeen etxeen definiziora egokitu direnak. Errenteriako emakumeen etxea, Hernaniko Kulturarteko Plaza feminista, Basauriko Marienea edota Azpeitiko Emakume txokoa dira horren adibide garbia. Espazio zabalak dira, askotariko erabilerak bermatzen dituzte, eta duten jarduerara egokitzen dira.

Guztietan daude erabilera anitzeko gelak, baina badituzte liburutegiak, bulegoak eta harrera egiteko espazioak ere. Orohar biltegiak dituzte, Emakumeen etxeko zein herriko talde feministen materiala gordetzeko, eta guztietan daude komunak. Gutxi batzuetan sukaldeak ere badituzte, elkarrekintza sustatzen dutela iritzita eta eremu informalei ere tokia emateko.

Hernanin, Basaurin, Donostian, Arrasaten eta Gasteizen berdintasun arloa bertan kokatuta dago. Ez dago udaleko beste arloekin batera, eta bulegoak emakumeen etxeetan dituzte Berdintasun teknikariak zein ordezkari politikok. Ez da denetan ematen den errealitatea ordea. Horregatik uste dugu, ondo aztertu beharko litzatekela horrek berdintasun politikak garatzeko orduan onurak sortzen dituen edo zailtzen duen beste arloetan berdintasun ikuspegitik eragiteko aukera. Argi dagoena da herritarrekiko harremanak gerturatzen dituela, emakumeekin hartu emana oso zuzena dela, eta askotan ez dela horrela izaten teknikari zein ordezkari politikoenekin.

Etxe askotan dute irisgarritasun plana, edo egokitutako espazioa mugikortasun mugatua duten pertsonentzat. Hala ere, beste behar bereziarako ez daude guztiz prestatuta. Adibidez etxe guztietan ez dago Braille ezta zeinu hizkuntzarako itzulpengintzarik. Oraindik Etxeren batean, bereziki espazioak ez duelako aukerarik ematen, ez dute irisgarritasun planik eta espazioak ez daude guztiz egokituak.

• INDARGUNEAK ETA ERRONKAK

Zalantzarik gabe, Emakumeen Etxeak aldarrikapen feministen lorpen garrantzitsua izan dira. Mugimendu feministaren eta Emakume elkartearen topagune dira, baita erreferente ere. Askotariko emakumeentzat bilakatu dira espazio seguru, norberaren etxe edota gela, eta urte hauetan guztietan hamaika egitasmoen aterpe izan dira. Feminista askoren bizitzen parte dira, eta askorentzat bizitza eraikitzeke ezinbestekoak. Horretan bat egiten dute guztiek.

Baina emakumeentzat ez ezik, herrietan ere eragin positiboa izan dute espaziook. Batetik emakumeei bai politika publikoetan, baita espazio publikoan ere posizio soziala aitortu die, eta bigarren mailako herritar izateari uzteko bideak ireki ditu. Jakitun gara espazio bat izateak ez duela bere horretan bermatzen zapalkuntza patriarkalarekin amaitzea, baina tresnak eskaintzen ditu, eta bideak zabaldu.

Bestetik herrietan borroka feministarekiko zubiak eraikitzen lagundu dute. Gaur egungo mugimendu feminista ez da orain dela hamarkada bateko berdina, aitortza irabazi du, hedatu da eta ezinbesteko begirada bilakatu da hainbat eremuetan. Horretan guztian Emakumeen Etxeek eragina izan dute; izan ere, lagundu dute teoria zein praktika feminista hedatzen, herritarrak trebatu dituzte eta hainbat aldarrikapen feminista egikaritu dituzte. Arrasateko Emakume Txokoa, ibilbide luzekoa izaki, asko nabaritu dute aldaketa urte

batzuetatik gaur egun arte. Borroka "lau feministena" izatetik, herrian autoritate handia lortzera pasa dira, eta hein handi batean Emakumeen Etxeari egokitzen diote aldaketa.

Azkenik herriak bizigarriagoak egin dituzte. Indarkeria matxistei aurre egiteko baliabide ugari jarri dira martxan emakumeen etxeetan, herritar guztien etxeetan ez dauden baliabideak jarri dira eskuragarri, topalekuak eskaini dituzte eta askotariko emakumeen zein herritarren gune bihurtu dira. Norberaren zein komunitatearen osasunerako, ezinbestekoa da besteekin hartu-emana edukitzea. Askotarikoak izango dira norbanako gisa ditugun ahuldadeak, bakoitzaren behar eta nahiak, baina argi dagoena da denok dugula besteen beharra, eta horri bide eman diote etxe hauek. Elkarbizitza sustatu dute, pertsona batzuk besteekin bizitzeko arte hori. Arreta jarri dute askotariko emakumeen behar eta desiretan, baita sortzen diren gatazka zein horien kudeaketan, Hernaniko Kulturateko Plaza Feministaren, zein Marienearen ibilbidean ikusi dutenagatik. Eibarko emakumeen etxetik diote sustatu dutela begirunea, enpatia, errespetua, tolerantzia... Horrenbestez, bereziki herriarekiko konpromisoa erakutsi dute, bizitzea merezi duten bizitzen aldeko konpromisoa sustatzen dihardute eta.

Hori guztia gertutasunetik egin da, denen eskura jarriz proiektua. Azeptiko Emakumeen Txokotik aipatu dute hurbileko eta konfiantzazko harremanak eraikitzeke aukerak eskaini dituztela, askotan ez direlako antzeman gune ofizial gisa, eta harreman horizontalagoak eraiki baitira. Horrela emakumeen parte hartze komunitariorako espazio bilakatu dira, autogestioa bultzatu dute eta bereziki formazio, trebakuntza zein hausnarketarako gune dira guztien iritzi.

Mugimendu feministaren inplikazio zuzena izan dute, eta baita udalarena ere (kasu gehienetan), hori oso positibotzat jotzen da Gasteiztik. Horiek horrela, Erreteriatik diote mugimenduaren intzi-

dentziarako gaitasuna biderkatu dutela, aurretik egiten ziren ekimenei bultzada eman dietelako (adibidez dinamizatzaileak egonda) eta politika publikoetan eragiteko aukerak ireki dituela. Marieneatik aipatzen da udaleko beste sailen arteko elkarlana ere sustatu dutela eta lan prebentiboa egiteko zein beharren detekziorako espazio erabakiorrak direla.

Hala ere, bide berriak urratzeak erronkez betetzen ditu espazio hauek. Erreferentziatzko tokiak izan arren, oraindik asko gelditzen da egiteko. Lortu da gutxi gora behera belaunaldi guztiak ukitzea, baina adibidez Hernanin eta Arrasaten gazteen falta somatzen dute, erreleboa bermatzen den arren, erreferentzia handitzeko premia sentitzen da. Berdina gertatzen da 35 urtetik gorako emakumeekin, amak egin direnekin batik bat; hutsune handia somatzen da Basaurin, batik bat. Batzuk badaude, baina azpi ordezkaturak dagoen adin tartea da. Jatorriak ere markatzen du parte hartzea. Lortu da emakume migratuek Emakumeen Etxeak erabiltzea, bertako zerbitzuak baliatzea eta erreferentziatzko lekuak izatea. Hala ere, herri guztietan ez dute etxea zerbitzuetatik kanpo erabiltzen, ez daude artikulazio feministarako espazioetan eta formazio gutxitan parte hartzen dute. Horrek arrakala handia sortzen du emakumeen artean, eta mahai gainean jarri zenbait kolektiboengana iristeko egin beharreko hausnarketa, espazio hauetan kritika dekoloniala egiteko premia eta zubiak eraikitzen jarraitzea. Gune anitzak izan arren, aniztasun hori kudeatzeko baliabideak ez dira nahikoak. Horretan indar berezia jartzen dute Donostiatik; izan ere, emakumeen elkarteak borondatez jarduten dute eta ezin dute aniztasun hori bultzatzeko lan askoz gehiago egin baliabide publiko gehiago gabe.

Horrekin lotuta agertzen den beste hutsune bat aurrekontuekin, espazioekin zein baliabide humano zein materialekin du lotura. Askoren ustez eskasak dira duten potentzialitatea kontuan hartuta, eta handitu beharko lirarteke. Espazio batzuk baliabide ekonomiko

oso gutxirekin egiten dute aurrera, eta “ezin zaie gehiago eskatu”. Dinamizatzaileak dauden tokietan gain karga dutela aipatzen da, eta Mugimendu Feministak edo etxeak kudeatzen dituzten elkar-teeek ezin dute borondatez gehiago barne hartu. Gainera indarkeria matxistari aurre egiterako garaian ere gabeziak identifikatu dira. Emakumeen Etxeak emakumeen urgentziarako beharrei ezin erantzunda dabilta. Halaber, kasuen sistematizazioa hobetu behar da: ez soilik datuak biltze aldera, baizik eta Emakumeen Etxean egiten den lanaz jabetzeko (Elhuyar 2021: 19).

Horrenbestez, ezinbestekoa ikusten dute agenda politikoko lehen lerroko egitasmoak izatea, herri batzuetan handitzeko borondatea agertzea, beste espazio batzuetara mugitzeko aukerak aztertzea eta aurrekontuak handitzea.

Azkenik, feminismoarekiko atxikimenduarekin kezka agertu da. Askotariko emakumeek erabiltzen dute espazioa, bertan formatu zein trebatzen dira, eta badago ahalduntze indibidual bat, kontzientzia hartzea, eskubideez jabetzea eta norbanakoan aldaketa. Aitzitik, ahalduntze kolektibo edo politikorako saltoa handia da oraindik. Jabekuntza edo ahalduntze eskoletatik Mugimendu Feministaren artikulazio eremuetara saltoa ez da ematen, eta militantzian ez du islarik. Herriko egitasmo feministak antolatzen ez dago askoz jende gehiago, nahiz eta mobilizazioetan parte hartzea asko handitu. Antzekoa gertatzen da eskaintzarekin: teoria feminista ardatz duten ekimen edota lan saioetan parte hartzea asko jaisten da. Aldi berean horrek Emakumeen Etxeko funtzionamenduan eragiten dutela aipatzen dute guztiek, emakumeak etxeko antolaketan inplikatzeari dezakeelako. Etxeen funtzionamenduan emakumeen inplikazio handiagoa lortzea da gaur gaurkoz erronketako bat. Beraz, badago lana norabide horretan.

AZKEN HAUSNARKETA: ERRONKETATIK ABIATU.

EMAKUMEEN ETXEAK HEDATU ETA SENDOTZEKO OINARRIAK

Gobernantza eredu publiko komunitarioa

Argi dago herritarren, ehun sozialaren eta administrazio publikoaren artean sortu direla Emakumeen Etxeak, eta etorkizunean iraungo badute, ezinbesteko piezak direla hirurak. Hortaz, horien kudeaketan eta funtzionamenduan pentsatzen dugunean batzuen eta besteen parte hartze zuzenean pentsatu behar dugu eta bakoitzaren rola zein izango diren ondo definitu, ondoren tentsioak egon ez daitezzen.

Emakumeen Etxeek demostratu dute eremu publikoa eta komunitarioa ez dutela zertan banatuta egon behar, eta duten harremana ez dela dikotomikoa, baizik eta elkarren artean eraiki daitekeen zerbait. Hala ere, esan bezala, ondo definitu behar da zein paper jokatu duen administrazio publikoak eta zein paper izango duen eremu komunitarioak, jakinda haien artean botere erlazioa dagoela; hots, erakunde publikoen iritzia erabakiorra izango dela edozein prozesuan, eta, aldiz, ehun sozialarena ez duela zertan hala izan behar. Izan kogestio eredu, edo izan udalak nagusiki kudeatzen duen eredu, bietan derrigor definitu behar da emakume taldeek izango duten papera, eta herritarren parte hartzearen esku zer utziko den. Zein izango den herritarrek erabakitzeko duten ahalmena, zein espazio izango diren parte hartzeko, eta nola orekatuko diren parte hartze logika ezberdinak; izan ere, bai moldeak, bai erritmoak ez dira berdinak batzuetan eta besteetan.

Tentsio horiek gutxitzeko, demokratizazio prozesuak behar dira, eta ehun sozialak administrazioan parte hartzeko zein mekanismo behar diren definitu; izan ere, komunitateak sortzen du sektore publikoa, eta hori gabe ez da gai gizartean ditugun erronkei aurre egiteko. Eremu publikoaren papera bermatzailearena da, komunitateak egitasmoak aurrera atera ditzan. Administrazioak baliabide publikoz hornitu behar ditu Emakumeen Etxeak, eta zentzu horretan espazioari, aurrekontuari eta giza baliabideei arretaz begiratu behar zaie, eskaintzen diren zerbitzuak egokiak izan daitezen, herritarren gehiengora iritsi daitezen, eta sortzen diren ekimen komunitarioak babestu daitezen.

Aniztasunaren kudeaketa

Zalantzarik gabe ahalik eta emakume gehienetara iristea izan behar du bai Emakumeen Etxeen, bai politika publikoen, bai Mugimendu Feministaren helburua. Askotarikoak dira emakumeak*, askotarikoak haien behar, interes eta desirak. Hala ere, emakumeen arteko ezberdintasunez gain, zeharkatzen dituzten eta posizio sozial ezberdina egokitzen dieten menderakuntzak zehaztu behar dira eta kudeatzen saiatu. Teorikoki geroz eta gehiagoetan entzuten dugu ikuspegi intersektionala txertatu behar dugula jardura publiko eta politikoan, baina praktikan oraindik kostatzen zaigu

arduratik jokatzea, subjektu pribilegiadunak identifikatzea eta bosterea alde batera utzi eta ez baliatzea. Aukerak irekitzeak ez du esan nahi aukera berdinak ditugunik, eta horregatik Emakumeen Etxeetako proiektuetan aniztasun hori aitortu eta elkarbizitzarako bitartekoak jarri behar dira.

Zentzu horretan badira hainbat aspektu kontuan hartu beharrekoak:

- **Hizkuntza:** askotariko hizkuntzak bizi dira elkarrekin Euskal Herrian eta aniztasun hori oztopo ez bilakatzeko kudeatu egin behar da, osterantzean praktikan hizkuntzak gutxiesteko arriskua dago. Ildo horretan, garrantzitsua da Emakumeen Etxeko espazioetan zein hizkuntza erabiliko den adostea guztien artean baina baita dagoen aniztasun horri ere bide emateko moduak topatzea. Adibidez, programazioa hizkuntza ezberdinetan garatuz, bileretan itzulpenak erabiliz, eleaniztasuna bermatuz, etab.

- **Parte hartzeko gune eta denborak:** denboraren erabilerak gure bizi antolaketarekin zerikusi estua du. Emakumeen Etxean ahalik eta emakume gehienengana iritsi nahi bada, garrantzitsua da horien denbora antolaketak kontuan hartzea. Zentzu horretan, erabiltzaile potentzialen ordutegiak, erritmoak edo ohiturak aintzat hartuz programatzea litzateke egokiena, edota eskaintza ahalik eta zabalena izatea denbora eta parte hartze guneei dago-kienean.

- **Espazio misto eta ez mistoak:** Emakumeen Etxeetan ikuspegi feminista da oinarria, eta geroz eta garrantzi handiagoa hartzen ari da ikuspegi antiarrazista integratzea. Horiek horrela, aukera ematen du nagusitzen diren emakume zuriez gain, beste subjektuekin ere zubiak egin eta aliantzak eraikitzeko. Espazio mistoak egon daitezke, baina horrekin batera garrantzitsua da gizarte errealitate konkretuak bizi dituzten emakumeak elkarrekin biltzeko espazio propioak ere izatea.

- **Komunikazioa giltza:** aniztasunaren kudeaketan garrantzitsua da komunikazio bide ezberdinak erabiltzea. Zentzu horretan, azken urteetan bogan dauden sare sozial eta bestelako atari digitalez gain, aurrez aurrekoaren garrantzia azpimarratuko genuke arrakala digitalari aurre egin eta gertuko harremanak garatze aldera. Horrekin batera, komunikatzerakoan kontuan izan behar da ingurune sozialeko aniztasuna eta horretara egokitutako kanalak abiarazi (komunikatzeko moduak hizkuntza, adin, eta bestelako aldagaien arabera moldatuz).

- **Oinarrizko beharrak eta behar estrategikoak:** Parte hartze soziala bultzatzeko, eta aniztasuna kudeatzeko ezinbestean hartu behar dira kontutan pertsona bakoitzaren aukerak, mugak eta oztopoak. Emakumeen Etxeetan zerbitzuak eskaintzen dira, trebakuntzarako aukerak daude eta intzidentzia politikorako espazioak ere aktibatzen dira. Baina aurretik esan bezala, denok ez dugu posizio sozial berdina eta ondorioz gure parte hartzeko aukerak ere ez dira berdinak. Ondorioz, garrantzitsua litzateke norbanakoen oinarrizko beharrak asetzeko estrategiak integratzea emakumeen etxeetan (ez bakarrik), eta existitzen diren zerbitzuak egokitzeaz gain, behar horiei begirako programak martxan jartzea. Modu horretara, askotariko zapalkuntzei aurre egiteko aukerak biderkatuko lirateke.

Ahalduntze kolektibotik, boteretez feministara

Aurretik aipatu bezala, askotarikoak dira emakumeen bizipenak eta orotarikoak ere diskriminazioei aurre egiteko estrategiak. Horiek gure alor intimoan, pribatuan eta publikoan eragiteko balio behar dute, baina beti ez dugu egoeraren irakurketa kolektiboa egiteko baliabiderik (denbora, espazioa, eta abar), eta, are eta

gutxiago, zapalkuntzari batera aurre egiteko bitarteko partekaturik. Horregatik garrantzitsua da sistema patriarkalaren eta berau sortzen dituen bereizkerien jabe izatea, eta gaur egun nola eragiten duten jabetzea. Ezinbestean ikusarazi eta aztertu behar ditugu egitura patriarkalaren ondorioak zeintzuk diren, eta zein diren aterabideak.

Emakume eta gizonen arteko diskriminazioak desagerrarazteko, emakumeen arteko espazioak sortzen jarraitzea ezinbestekoa da. Horregatik sortu behar dira emakumeek dituzten esperientziak partekatzeko guneak eta aurrera egiteko estrategien gaineko hausnarketa kolektiboa sustatzeko ekimenak.

Boteretze feministak eskatzen du autoafirmazio indibiduala eta erresistentzia kolektiboa. Botere harremanei aurre egiteko estrategia partekatuak biltzen ditu, eta protesta zein mobilizazioetan adierazi daiteke. Errotikako eraldaketa prozesu bat da: sistema patriarkalak sortzen dituen diskriminazioak eta zapalkuntzak ikus-tarazi behar ditu, eta bizitza bizigarriak eraikitzeko tresna kolektiboak eskaini.

Eragiteko gaitasunean oinarritu behar dute prozesua horiek, intzidentzia politikoan. Horregatik, Emakumeen Etxeek ezin dute elkartzeko espazio izatera mugatu. Hori izan behar dute, elkar harremanean sortzen baita ekintza politikorako oinarria. Hala ere, tokiko politika publikoetan zein herriko jardueran eragiteko gaitasunean trebatu behar duten espazioak izan behar dute.



ERANSKINA I:

ESPARRU ARAUEMAILEA

Emakumeen Etxeek, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak maila guztietan arautzen dituzten aginduak, arauak, estrategiak eta programazioak betetzen dituzte. Jarraian, lege eta programa esanguratsuenak jasotzen dira.

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA, BERDINTASUNA LORTZEKO ESTRATEGIAREN ARDATZ NAGUSIA:

Nazio Batuen Erakundeak 1995ean Beijinen egindako Emakumeen Munduko IV. Konferentzian argi utzi zuen giza garapenean aurrera egiteko funtsezkoa dela emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea, eta berdintasun horretara iristeko ezinbesteko estrategia bezala kokatu zen emakumeen ahalduntzea. Hala aldarrikatu zuen adierazpenaren 13. artikuluan: “berdintasuna, garapena eta bakea lortzeko, funtsezkoak dira emakumearen zeregina indartzea eta emakumeek gizartearen esparru guztietan berdintasun-baldintzetan parte hartzea, baita erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzea eta boterea eskuratzea ere”. Adierazpen hau, 2015ean New Yorken berrikusi eta berretsi zen (Beijing+20).

NBEren Giza Garapenerako 2030 Agendaren 17 helburuetako bosgarrena, genero-berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztiak ahalduntzea da. Era berean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna zeharka lantzeko eta garatzeko beharra ezartzen du, gainerako helburuetan.

INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO ESTRATEGIAZ:

Europako Kontseiluak Istanbulgo Hitzarmena egin zuen 2011n, emakumearen aurkako indarkeriari eta etxeko indarkeriari aurrea hartzeko eta aurre egiteko. Emakumeen aurkako indarkeriaren aurka borrokatzeko nazioartean gehien hedatu den hitzarmena da, bertan, emakumeenganako indarkeria giza eskubideen urraketa larritzat hartzen da. Espainiako Estatuak 2014an sinatu zuen. Hitzarmen horren 12. artikuluan, Emakumeen etxeak bertan jasotako neurriei behar bezala erantzuteko tresna osagarria izan daitezkeela zehazten da. Zehazki, 12. artikuluko 6. puntuan jasotzen da “sinatzaileek beharrezko neurriak hartuko dituztela emakumearen autonomiarako programak eta jarduerak sustatzeko”, edo 18. artikuluan aipatzen da komenigarria dela “lokal horietan babes- eta laguntza-zerbitzuak ezartzea”.

Espainiako estatuan genero berdintasunaren alorrean ondorengo legeek osatzen dute erreferentziatzeko arau esparrua:

- 3/2007ko Lege Organikoa, Emakumeen Eta Gizonen Berdintasun Eraginkorra Lortzekoa.
- 1/2004ko Lege Organikoa, Genero Indarkeriaren Aurka Babes Integrala Emateko Neurriei buruzkoa.
- 10/2022ko Lege Organikoa, Sexu Askatasunaren berme integralari buruzkoa.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen egokitzapena egin da berriki, 1/2022 Legearekin hain zuzen, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoarekin. Bertan, EAEko udalei betetzeko eskatzen zaien askotariko funtzioen artean, ondokoa aipatzen da: “emakumeen ahalduntzea bultzatzeko programak edo zerbitzuak ematea edo baliabideak ezartzea, hala nola ahalduntze-eskolak, emakumeen etxeak, sare komunitarioak eta udalez gaindikoak edo beste batzuk, zerbitzu horien izaera dela-eta udal mailan eman beharrekoak direnean” (7. artikulua, 1.puntua i) Horrez gain, honelako beste ideiak arautzen dira:

- Emakumeen ahalduntzeaz: “Euskal botere publikoek baldintzak ezarri behar dituzte eta behar diren egokitzapenak egin behar dituzte emakumeak ahalduntzen laguntzeko, emakumeen dibertsitatea kontuan hartuta” (4. artikulua, 10. puntua).

- Parte-hartzeaz: “Euskal botere publikoek, politika publikoak garatzerakoan, talde feministen eta emakume taldeen, gizarte-eragileen eta, oro har, herritar guztien partaidetza eta elkarrizketa bultzatu behar dute; hala, beste partaidetza-eredu bat faboratuko da, demokratikoagoa, taldeen ekarpenei legezketasun handiagoa emango diena eta haien ekarpenek benetako eragina izatea erraztuko duena. Horretarako, parte hartzeko gune eta bitarteko egokiak sortuko edo egokituko dira, irisgarritasun unibertsala bermatuko dutenak” (4. artikulua 13. puntua).



ERANSKINA II: GALDETEGIA





 emagin | FORMAZIOA ETA
IKERKETA FEMINISTA

www.emagin.eu

emagin@emagin.eu